

Gure enpresa Euskal Herria eta gertuko Espainia eta Frantziako tokietan kirolaren munduan famatua izatea bilatzen dugu, jende asko etortzeko eta etekinak ahalik eta handienak izateko.

Hasteko, “Basque Team”ekin kontaktuan jarri beharko gara, eta hauek beren webgune eta bestelako bideen bidez gure kanalaren propaganda egingo dute eta horrela pixkanaka jendea kanalari buruzko informazioa lortzen joango da.

Bigarrenik, piraguismoko talde ezberdinekin ere harremanak mantendu beharko ditugu. Talde hauei gure ekimenaren berri emango diegu eta beraiek entrenatzeko ordu batzuk izango dituztela aipatuko diegu. Horrela, talde horietako kideak beren entrenamenduetako batzuk gure instalazioetan egitea erabakiko dute. Gainera, Euskal Herrian ia kanalik ez dagoenez eta daudenen kalitatea oso ona ez denez, piraguista askorentzat oso errentagarria izango da gure kanalean entrenatzea, eta beraz, bezero kantitate nabarmen bat izatea espero dugu.

Hirugarrenik, taberna alkitatzeko asmoa dugu. Hasieran, herriko norbait bilatuko dugu berak taberna hartu dezan. Herriko inorrek ez badu taberna hartzeko intenziorik, egunkarian irgarki bat jarriko dugu eta gure web-gunean ipiniko dugu. Hau horrela izanda, tabernariarentzat izango dira bertako produktuen salmentarekin lortzen dituen etekinak, eta guk pertsona horrek ordsaintzen digun dirutik izango ditugu irabaziak.

Laugarrenik, ikastola eta ikastetxe ezberdinekin ere hitz egingo dugu. Bertako ikasleak gure kanalarea etortzea oso baliagarria izango da, ikasle asko direlako eta etekin handiak lortzeko aukerak izango dituzte. Guk jarriko ditugu autobusak, eta gidaria ikastetxetaraino joango da ikasleak jasotzera. Normalean egun osoko bisita izango da: goizean azalduko dira eta kirolean arituko dira, eguerdian montatuko ditugun mahaietan bazkalduko dute denek batera, eta arratsaldean denbora bat izango dute berriro ere urtetako kirolean aritzeko.

Espainiako piraguismoko federazioarekin ere kontaktuan jarriko gara, eta gure kanala txapelketak egiteko prest dagoela azalduko diegu. Euskal Herri mailan eta Espainia mailan lehiaketak egiten hasiko gara, eta proiektua ondo baldin badoa, Europako lehiaketak antolatu ahal izango dira.

